

2004KO EKAINAREN 24KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko ekainaren hogeita lauan, arratsaldeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkolla Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak esaten du Areria Zutabeak izenpetutako mozioa jaso dela Udaletxean Eguneke Gai Zerrenda bidali ondoren eta mozioa Eguneke Gai Zerrendan dagoen gai bati buruzkoa denez, hor barruan tratatuko dela eta mozioaren aurkezleei hitza emango zaiela esateko dutena esan dezaten.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2004ko otsailaren 16ko ez-ohiko, otsailaren 26ko ohiko, apirilren 6ko ez-ohiko, maiatzaren 18ko ez-ohiko eta maiatzaren 26ko ohiko batzaraldietako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- LANGILEEN LAN HITZARMENA.-

Alkateak udalaren langileen lan baldintzen inguruan emandako prozesuaren azalpena egiten du. Esaten du sindikatuarekin adostasunik ez dela lortu baina alde instituzionalak orain onarpenera jarriko den testua onartzea egokia ikusten duela. Esaten du baita ere langileen asanbladari proposamen honen berri eman zitzaiola lehengo asteartean eta era berean Hazienda eta Pertsonaleko Batzordean informatua izan dela. Honako hau esaten du baita ere:

1. Azken hamar urteotan, foru eta udal langileen lan-baldintzak batera eta koordinazioz negoziatu eta adostu dira foru-aldundietako eta udaletako –EUEDEL Euskadiko Udalen Elkartearen bidez– erakunde-ordezkarien artean, eta, koordinazio-esparrua ez ezik, euskal gizartearentzako onura argiak ere sortu dira.

2. Bi alderdiek azken urteotan sortutako ezinbesteko zailtasunak gainditu dituzte, diagnostikoa eta hobekuntza-neurriak egituratzeko ahalegina batera egin dituztelako. Nolanahi ere, bi alderdientzat ageri-agerikoa zen elkarren artean banatu beharra zegoela zerbitzu publikoa errealitate berrietara egokitzeko ahalegina eta arau-egokitzapen zehatzak egiteko premia, hitzarmenaren kudeaketan sortu eta kudeaketa bera oztopatzen zuten arazo larriak konpondu ahal izateko.
3. 2004ko ekitaldiko negoziaketari dagokionez, oso datu garrantzitsua nabarmendu beharra dago, ELA eta LAB sindikatuak ez dutelako negoziaketa-mahai orokorrean parte hartu nahi izan.
4. Edonola ere, hainbat eta hainbat urtetan eraikitako mahai bateratuan parte hartzen jarraitzeko erabakia hartu duten alderdiekin eratu da negoziaketa-mahaia.
5. Protagonisten jarrera berezi-berezia eta hasitako zereginaren zailtasuna kontuan hartuta, sektore publikoko alderdi garrantzitsu honen lan-baldintzak arautzeko piezak berriaz azaldu eta eguneratzeko orduan, erakundearen ordezkariari eta CCOO sindikatuari, euren erantzukizun politiko eta sindikalaren ikuspegitik, egokia iruditu zaie hitzarmen hau sinatzea, euren gain hartutako konpromisoaren adierazgarri da eta. Horretarako, negoziatzeko sistema bateratua egituratu eta sendotu dute eta ezinbesteko iragaitza-aldiko baldintzak hitzartu dituzte.
6. Dena dela, jakin badakigu sindikatu guztiek ez dutela ordezkari inplikaturik erakunde guztietan. Hori dela eta, adostutako konpromisua egituratu beharra dago, hitzarmen honetan hartutako konpromisoaren berri emateko. Horrela, bada, aldi berean, alderdiek erabakiak hartu ahal izango dituzte foru eta udal erakunde-multzo osoarentzat.

Jarraian onarpena jarriko den proposamenaren berri ematen du. Proposamena honako hau da:

LEHENENGOA

Hitzarmen hau 2004ko urtarrilaren batetik 2004ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

BIGARRENA

Oro har, 2004. urterako soldatak %2 igoko dira, Euskadiko toki eta foru erakundeetako langileentzako 2003ko urteko soldata osoen aldean.

HIRUGARRENA

Aurrean azaldutakoa alde batera utzita, 2004. urtean langile horiei banan-banan ezarriko zaie lanpostu-mailako osagarriak aparteko ordainsarrietan duen eraginaren gehikuntza, aplikatu beharreko oinarritzko aurrekontu-legerian aurreikusitako zenbatekoaren arabera eta lan-kontratuko langileei dagokien kopuru berean.

LAUGARRENA

Era berean, ezarri beharreko oinarritzko aurrekontu-legerian xedatutakoaren arabera, fondo gehigarria eratzen da, helburuak betetzeko hobekuntza nabarmenak eta lanpostuen eragingarritasuna eta erantzukizuna handitzeko jarduera nabariak saritzeko.

BOSGARRENA

2004. urtean, pentsio-planetara egiten diren ekarpenei eutsiko zaie. 2004. urteari begira, hirugarren eta laugarren erabakietan aurreikusitako soldata-igoerei dagokien zenbateko orokorra erakundearen soldata-multzoaren %1,2koa izango da gehienez ere.

SEIGARRENA

Langileen gainerako lan-baldintzei dagokienez, aurreko hitzarmenetako homogeneousotasun-parametroei eutsiko zaie, eta toki-administrazio batek ere ezin izango ditu aldatu.

ZAZPIGARRENA

Era berean, aurreko erabakiak erakundeetan hableharrez deitutako negoziaketa-mahaian aurkeztuko direla hitzartzen da, organo eskudunen erabakien bidez promulgatu baino lehen.

ZORTZIGARRENA

Erakunde-alderdiak jendaurrean adierazi nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki erakundeetako lan-harremanak arautzeko esparru berrirako proposamen osoa sindikatueta-ko solaskideekin egiteko eta negoziatzeko konpromisoa hartzen duela, onartu berri diren oinarrietan jasotako printzipioak eta helburuak kontuan hartuta. Horrela, bada, arautzeko esparru berriaren gaineko adostasuna berreskuratu ahal izango da sindikatueta-ko ordezkariekin.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du proposamena onartu egingo dutela baina sindikatuak lehen bai lehen mahaian eseri daitezela PSEk duen nahia adierazi nahi duela.

Areria Zutabeak aurkeztutako idatziak honela dio:

“UDAL ETA FORU LANGILEEN HITZARMENAREN AURREAN

Hilabeteak dira jada, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udal eta Foru langileen ordezkariak, administrazio hauen arduradun politikoekin, datozen bi urteetarako lan hitzarmena sinatzeko pausuak eman nahian dabiltzala. Udal eta Foru instituzio hauen EAJ eta EA-ko ordezkariak, beste eremu batzuetan harturiko erabakiei jarraiki, ez du inongo borondaterik erakutsi, ez forma ez eta eduki mailan ere langileen akordiotara iristeko.

Euskal Herriko gehiengo sindikalak ordeza, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba mailan Administrazioaren aldetik egin nahi izan zaien presioari uko eginaz, negoziazio mahaiak udal bakoitzean irekitzeko deialdia egin dute. Dei horren zilegitasuna geure eginaz, ARERIA ZUTABEA herri plataformak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Udal Batzarrean aurkeztu eta onartua izan dadin:

- 1.- Udal honek ozenki salatu nahi du, lan hitzarmen honen bidean EUDEL erakundeak eta bere ordezkari nagusiek izan duten jarrera; inposaketa nagusi, instituzioetako ardura-dun eta langileen arteko akordioarako bidetik urruntzea besterik ez baitu lortu. Era berean, instituzioen kudeaketa, enpresa pribatu baten eskema berdinekin egitea onartezina dela deritzo udal honek.
- 2.- Udal honek, hitz egiten hasteko helburuarekin langileak burutzen ari diren mobilizazioekin bat egiten du.
- 3.- Udal honek, lan hitzarmena arautzen duen akordioaren bidean, negoziazio mahaia irekitzea onartzen du eta aste beteko epean, langileen ordezkariekin lehen bilera bat egiteko konpromezua hartzen du.
- 4.- Udal honek Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako udal guztiei, jarrera berdina hartu dezaten dei egiten die.

Euskal Herrian, 200ko ekainean”

Idatzi honetan esaten denari erantzunez Alkateak esaten du negoziazioa EUDEL mailan irekita egon dela duela hilabete batzutik eta mahai horretan eseri nahi izan ez dutenak ELA eta LAB izan direla. Gehitzen du ez dakiela oso kontziente ote diren udal bakoitzean mahaia irekitzea eskatzen dutenean honek zein ondorio izan ditzazkeenari buruz.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, proposamena onartu egiten du.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruan esaten du zerbitzua ematen duen Gizaintza, S.L. enpresako langileak, soldatak ez dizkietela ordaintzen eta, ekainaren 29an hasiko den grebarako deialdia egin dutela. Esaten du baita ere Gizarte Segurantzatik Gizaintza, S.L.ren aurkako enbargu agindua jaso dela. Esaten du baita ere grebaren aurrean langileekin funtsezko zerbitzuak adostu direla, eta hontara enpresa ez zela agertu ere egin. Bukatzen du esanez guzti honen ondoren, Udala aztertzen ari dela enpresa izenpetutako kontratuarekin betetzen ari ote den honela ez balitz kontratua eteteko.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du iradokizun txiki bat egin nahi duela eta gehitzen du asteartean Eguneko Zentruaren inaugurazio ekitaldia egin zela eta norbaitzuk etorri zaizkiola diskurtsoak euskara hutsean egin zirela esanez eta euskaraz ez dakitenak baude-la kontutan izateko eta hurrengoan, modu laburtuan behinik behin, gazteleraz ere egiteko.

Alkateak erantzuten dio Jubilatuen Etxean ere diskurtso bat egon zela akats bat dela medio, asteartean bezalaxe, gaztelera hutsean egin zena eta han zeuden pertsonak Eguneko Zentruko inauguraziokoan zeuden beraiek zirela eta orduan ez zutela ezer esan.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bile ra amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.